

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «23. Usabal. Industrialdea 2» esparruaren aldaketari.

Tolosako Udaltzatza, bi mila eta hogeita bosteko urriaren hogeita hamarrean, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «23. Usabal. Industrialdea 2» esparruaren aldaketari; zehazki. 2025eko uztailaren 15ean (9845 sarrera zenbakia), Rehabite, Aholkularitza Teknikoa SLP enpresak, Tolosako Udalaren eskariz, idatzi eta aurkeztutako «Plan Orokorren elementuen moldaketa «23.1 Usabal. Industria-garapen berria» eremua. hasierako onespenerako dokumentua» izeneko dokumentuan jasotakoari.

Bigarrena. Jendaurrean jartzea aurreko puntuan adierazita Tolosako HAPOn aldaketaren hasierako onespena, berrogeita bost egun baliodun, udaleko iragarki-oholean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan iragarkia jarrita.

Epe horretan, espedientea aztertu nahi duen edozeinen esku jartzea, egoki iritzitako alegazioak aurkez daitezten. Era berean, eta informatzeko soilik, udal honen egoitza elektronikokoan eskuragarri jartzea: <https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>.

Honako alderdi hauek adieraztea jendaurrean jarri beharreko laburpen exekutiboan:

— Hirigintza azpiesparru bat desklasifikatzen da. Hain zuzen, «23.1 Usabal. Industria garapen berria» izeneko.

— «19.1.1 San Blas etxeen zatia» deritzan zatiak eta «14.4 Elkanokalea» azpiesparruak jardun integratuko esparru bakarra eta independentea osatuko dute, baita gauzatze-unitate bakarra eta independentea ere.

Hirugarrena. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezten, kontsultak egin eta txostenak egin ditzaten. Ohar horiek Planaren zehaztapenetan txertatuko dira.

Laugarrena. Edozein motatako onarpen, baimen eta lizentzia ematea etetea, gehienez bi urtez, HAPOk «23. Usabal. Industrialdea 2» esparruaren aldaketa puntualaren xede diren eremuetarako, baldin eta eremu horien zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte.

Etendura berez iraungiko da ezarritako gehienezko epea amaitzen denean, edo, izapidetzen ari den planari behin betiko onespena epea amaitu baino lehen ematen bazaio, ematen zaion unean.

Bosgarrena. Jendaurreko epean, onartutako parte-hartze programan zehaztutako bilera irekia antolatzea.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Aprobación inicial de la modificación del ámbito «23. Usabal. Industrialdea 2» del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día treinta de octubre de dos mil veinticinco, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo. El contenido es la traducción del original en euskera y es el siguiente:

Primero. Aprobación inicial de la modificación del ámbito «23. Usabal. Industrialdea 2» del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa; concretamente el contenido del documento denominado «modificación de elementos del Plan General del ámbito «23.1 Usabal. Nuevo desarrollo industrial». documento para la aprobación inicial» redactado y presentado por la empresa Rehabite, Aholkularitza Teknikoa S.L.P., a instancia del Ayuntamiento de Tolosa, con fecha de 15 de julio de 2025 (número de entrada 9845).

Segundo. Someter al trámite de información pública la aprobación inicial de la modificación del PGOU de Tolosa señalada en el punto anterior, mediante anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en los diarios de mayor difusión del territorio.

Poner el expediente a disposición de cualquiera que quiera examinarlo en el mismo plazo para que puedan presentar las alegaciones que estimen oportunas. Asimismo, y a efectos meramente informativos, se pone a disposición en la sede electrónica de este Ayuntamiento: <https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>.

Señalar en el resumen ejecutivo sometido a información pública los siguientes aspectos:

— Se desclasifica un subámbito urbanístico. Concretamente, el denominado «23.1 Usabal. Nuevo desarrollo industrial».

— El tramo «19.1.1 parte de Villas San Blas» y el subámbito «14.4 Elkanokalea» constituirán un ámbito único e independiente de actuación integrada, así como una unidad de ejecución única e independiente.

Tercero. Informar a las Administraciones Públicas con competencias sectoriales para su conocimiento, consulta e informe. Estas observaciones se incorporarán a las determinaciones del Plan.

Cuarto. Suspender, por un plazo máximo de dos años, el otorgamiento de toda clase de autorizaciones, permisos y licencias para las áreas objeto de la Modificación Puntual del PGOU del ámbito «23. Usabal. Industrialdea 2», cuyas nuevas determinaciones supongan una modificación del régimen urbanístico vigente.

La suspensión se extinguirá automáticamente por el transcurso del plazo máximo establecido o, en su caso, por la aprobación definitiva del plan en tramitación antes de su vencimiento.

Quinto. Organizar, durante el período de exposición pública, la reunión abierta que se determine en el programa de participación aprobado.

Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, izapide-egintza bat denez, ezin baita haren aurka errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoa.

Tolosa, 2025eko azaroaren 10a.—Kristina Pelaez Errazkin, zinegotzi delegatua. (7811)

El presente Acuerdo no agota la vía administrativa por tratarse de un acto de trámite contra el que no cabe recurso alguno, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Tolosa, a 10 de noviembre de 2025.—La concejala delegada, Kristina Pelaez Errazkin. (7811)